


noaua



SANTUENEA JAI GIROAN MURGILDUKO DA ASTEBURU HONETAN

Jai egitarauaz gain, Santuenea Kultur Elkartek ikastaroak eta tailerrak antolatu ditu udazken hasierarako / 20. or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Usurbilgo herria, bizitegi-merkatu tentsionatuko eremuan / 06



NOAUA

Usurbil Kirol Elkartea denboraldi berriko erronkei heltzeko prest da / 08



NOAUA

Bizitza ospatuz borobildu zuten Iñurri Egunaren bigarren edizioa / 12



NOAUA

Errebote Asteburua antolatu dute irailaren 27 eta 28rako / 16



ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-23:00 Igandetik - Ostegunera
8:00-00:00 Ostirala eta Larunbata

**Astelehenetik Igandera sukaldea 10etan ixten da*

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027



Azken 2 plazak!

Hego Korea

IRTEERA 2025eko urrian

NOAOA
BIDAIAK

Noaoak gidatutako talde bidaia. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



 **Usurbilgo Udal**

 **KABIENE**
Usurbilgo elkarlan gunea

 **BETERRI BURUNTZA**

HASIZ HAZI diru laguntza
ekintzaile eta autonomoentzat:

URTEBETEKO EGONALDIA
KABIENEN, DOAN

Eskaerak aurkezteko bi epe:
1.epea: Maiatzak 31 arte **2.epea: Irailak 30 arte**

INFORMAZIO GEHIAGORAKO: Usurbilgo Udal 943 37 19 51 enplegu@usurbil.eus
 Kabiene elkarlan gunea 943 55 96 75 kabiene@kabiene.com
 Beterri-Buruntza autoenplegu zerbitzua 688 884 314 eta 747 441 745 ekintzailatza@beterriburuntza.eus

Ernaik Donostian deitutako mobilizazioarekin bat

Mobilizazio nazionala deitu zuen Ernaik aurreko igandean, "Ekin eta bultza, askatasunera!" aldarripean Donostian. 13:30ean Bulebarretik abiatzekoa zen manifestazioaren aurretik, usurbildarren argazkia atera zuten Gipuzkoako hiriburuko udaletxe atarian.

Usurbilgo Ernai gazte antolakundetik aipatu Gipuzkoako hiriburuko mobilizaziora joateko deia egin zieten gazteei, hilaren 14an.

Txiki eta Otaegi gogoan

Juan Paredes "Txiki" eta Angel Otaegi fusilatu zituztenetik mende erdia bete den honetan deitu zuten manifestazioa. Helburu bikoitza zuen hitzordua; "50 urte hauetan, Euskal Herriaren askatasunaren alde borroka egin duten belaunaldiak aitortza egin eta egungo gazte belaunaldiak Euskal Herria askatasunera eramateko indarrak batu eta bultza" egitea.



"Herri hau askatasunera eramateko ezinbestekoa ikusten dugu indarrak batu eta norabide bateratu batean elkarrekin bultzatzea", dio Ernai gazte taldeak.

Garbigune mugikorra, herri erdigunean

Atalluko Garbigunera joan ezin dutenei zerbitzu hau gerturatzea helburu duen Udalaren garbigune mugikorra Mikel Laboa plazan izango da irailaren 18tik 24ra. Gero, Aginagara eraman-go dute beste astebez.

Bestalde, irailaren 28an izango da errefusa biltzeko hurrengo zerbitzu eguna.

Iparraldeko sagardoaren dastaketa gidatua

Irailaren 25erako antolatu du saio hau Alkartasuna Usurbilgo baserriarren kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak 18:00etan Aginagako Eliza Zaharrean. Izena aurrez eman ahal da doan, Alkartasunako telefonoan (943361114) edo alkartasuna@usurbil.com helbidetan.

1958an jaiotakoak Artzabalen elkartuko dira

"Urtero bezala, aurten ere 1955. urtean jaioak urriaren 18an biltzeko aukera izango dugu, egun pasa eginez Baztango lurretatik egunaz gozatuz".

Izen-ematea urriaren 10era-ko osatu behar da. Telefonoz, whatsapppe: 675 006 445 (Maribi) 615 760 458 (Patxi). Emaillez: 1955usurbil@gmail.com

1950ean jaiotakoak bazkaria, urriaren 4an Atxegan

Urriaren 4an elkartuko dira bazkaritarako aurten 75 urte beteko dituzten herrikideak, Atxega jauregian. Hitzordura joan nahi duenak, izena emateko bi telefono hauetako batera dei dezake, irailaren 20a baino lehen:

648 83 83 70 (Pilar)

645 736 726 (Joxe Mari).



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkari koordinatoria:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia, Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Zeruak eta lurrak (11)

Markesak ezin zuen gehiago. Egunsentiarekin batera atez ate Helenaren bila hasizen. Ezber bakarrik, noski. Donostiatik poliziarik onenak ekarrarazi zituen, eta ez zen harri bakar bat ere geratuko altxatu gabe. Zoko guztiak miatuko zituen.

Herria ustekabeen esnatu zen ate kolpeka. Bat-bateko inspekzioak bat baino gehiago harrapatu zuen pijama jantzita. Poliziak ez zuen begirunerik izan inorekin, eta hankaz gora jarri zituzten etxe guztiak. Berria segituan zabaldu zen etxerik etxe. Aurreko egunetakoa gutxi ez, eta orain hura. Otzan-otzan makurtu zuten burua askok, baina etxe guztietan ez zen ongietorri bera izan, eta bat baino gehiago oldartu zen poliziaren aurka.

Iskanbilak Troiaraino iritsi ziren polizia bera baino. Korrika igo zen Ines ganbarara. Markesaren alabak zer-nolakoa eragin zuen ikusita, handik alde egin behar zuela oihukatu zion Helenari; hale-re, alaba txikiak ez zuen halakorik nahi. Ez zuen aitaren ondora itzuli nahi, gorroto zuela errepikatu zion. "Etorri nirekin!", esan zion. Inesek txoratu zela erantzun zion, berak ez zekala arazorik, gustura zegoela etxean. Neskatxaren egoskorkeriatzat hartu zuen, kapritxo hutsa, eta kapritxo batengatik hankaz gora jarri zuen herria.

Handik nola bidali ez zekenean igo zen aurpegi zurbil

ahizpa zaharra. Are zurbilago jarritzen panorama ikusitakoan. "Baina ba al dakizu zertan dabiliz? Inolako kezkarik gabe, nahi dutena egiten ari da zure aita!" "Eta heldu naitenez ulertuko dudala esango dit, seguru", erantzun zion Helenak. "Neska kaskarin eta pertxenta, alde gure etxetik ez baduzu gaizki amaitu nahi", mehatxatu zuen Alaitzek. "Ines nirekin baldin badator bakarrik!" Alaba gaztea guztia azaltzen saiatu zen, markesa txikiari buruan sartu zitzaioala ideia hura, eta hark ez zeukala zerikusirik. Baina ahizpa zaharrari berdin zitzaizkion bataren edo bestearen argumentuak. Polizia etxe hartara ailegatzen bazen miatzeko asmotan, familia guztia kondenatuko zuen.

Bitartean, Helenaren ahizpa bai zegoela pozarren. Bazekien inoiz ez zela izan aitaren begikoa, baina anaiari zein ahizpari gertatua tarteko, familia haren esku zegoen. Jada hil-kutxa sala handian jarri zuten, eta arrosarioak eskuan, bola-

**"INOIZ EZ ZITZAION
USURBILA JOATEA
GUSTATU, BAINA
BIDAIA HARTAN
BIZITZA ALDATU
ZITZAIOLA
PENTSATZEN ARI
ZEN"**

txoak hatz artean mugitzen zituzten. Hala ere, dolua fatxada hutsa zen bere kasuan, errezoak ez zeukan zintzotasunik, eta barru-barruan, barrez ari zen. Inoiz ez zitzaion Usurbila joatea gustatu, baina bidaia hartan bizitza aldatu zitzaioala pentsatzen ari zen. Adolfo senargaia urduri zebilen, zeren premua hil izana bere errua zela sinetsita zegoen, eta behin Helena alaba txikia topatutakoan, markesaren sumindura irentsi beharko zuen. Larrutu egingo zuen, argi zeukan, eta ikaraz, handik ihes egiteko beharrez sentitzen zen. Barra-biletatik ondo helduta zegoelagoratu zuen, ordea. Bat-batean eta ezer esan gabe Katalinaren ondok joanez gero, alferrik izango zen antipodetaraino joatea. Bestelako estrategia behar zuen gauzak okertzen baldin baziren.

Hamarnaka lagun hartu zituzten atxilo. Susmagarriak ziren den-denak, susmagarri izateko begi oker bat, ebaki itsusi bat, usain txarra nahikoa baitzen. Markesari lepoko zainak lehertuko zitzaizkiola zirudien Kaxkoko etxeetan alaba txikiaren arrastorik ez zela eta. Kalezarren gora egingo zuten ondoren, Bizkarretik hasi eta banan-banan miatuko zituzten herritarren etxe guztiak. Ez zen deskantsurik egongo Helena bilatu arte.

"Ez duzu harea zurizko hondartzetan bainatu nahi, Ines?". "Aizu, zergatik nahi didazu zurekin?". Dantzan ikusi zutenetik zeukan begiz jota.

Katekesi taldean izena emateko epea laster irekiko da

Aurten Katekesian izen-ematea modu telematikoan egingo da. 2. mailatik aurrerako umeak dituzten familiek posta elektronikoz jasoko dute izen-emate orria eta informazio guztia.


1. mailan izena eman nahi duten familiek aldiz, "parrokia-aren posta elektronikokoan salbatoreparrokia@gmail.com edo Parrokiako telefonoan 943 361 239 utz dezakete telefonoa eta izena. Gu jarriko gara harremanetan haiekin".

Izena emateko egunak irailaren 22tik 28ra izango dira. Katekesi saioen hasiera, urriaren 10ean.

Esperientzia Eskola eta oroimen tailerra

Irailaren 26ra arteko eman ahalko da izena, 943 377 110 telefono zenbakian edo astelehenetik ostiralera gizarte zerbitzuen egoitzan bertan, 9:00-14:00 artean, asteazketan izan ezik. "Zahartze aktiboa sustatzeko helburua dute bi ikastarook, eta urritik ekainera bitartean izaten dira, doan", berri eman du Udalak.

- Oroimen tailerra: "Memoria landu nahi duten adineko pertsonen zuzenduta dago; Lahar elkargoak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean antolatua".
- Esperientzia Eskola: "55 urtetik gorako pertsonentzat. Lan mundutik erretiroa hartu eta ikasteko grina duen orok eman dezake izena. Asteartean izaten da, 16:00etatik 18:00etara bitartean. Matia Institutuak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean antolatua".





Pentsiodunak, irailaren 5ean Gasteizen eskainitako prentsaurrekoan.

Pentsiodunek sustaturiko herri ekimen legegilearen aldeko mobilizazioak

Pentsioak osatzeko euskal sistema bat ezartzeko Herri Ekimen Legegilea (HEL) izapidetzearen aurka agertu da Eusko Jaurlaritza. "14 ordain-saritan 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, lege bihurtzea" xede zuen HEL-ak. Usurbilen, 524 sinadura bildu zituzten, 48.039 Gipuzkoan eta 140.000tik gora EAEn.

Mobilizaziorako deia

Eusko Jaurlaritza Herri Ekimen Legegile hau izapidetzearen aurka agertu da. "Exekutiboaren ustez, proposamen hori ez da beharrezkoa, eta egungo Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren (DSBIESL) koherentziaren aurkakoa da, Eusko Legebiltzarrak adostasun politiko zabalarekin onartu berri baitu", pentsiodunen ordezkariak aditzera eman dutenez.

Erabaki hori salatzeke lege-biltzar atarian agerraldia egin du egunotan Euskal Herriko

Pentsiodunen Mugimenduak. Isekatzat jo dute eskaera hau babestu zuten guztientzat. Aipatu herri mugimenduaren esanetan, "pentsaezina da Legebiltzarraren atea ixtea araugintza-baldintza guztiekin eta herritarrek legegintza-dinamikan parte har dezaten sustatzeko egindako ekimen bati".

Larunbatean, Donostian

Horregatik larunbatean, irailaren 20an deitutako manifestazioetan parte hartzera deitu dute, "gobernuak bere jarrera berriz azter dezan eta HEL tramitera onartzearen alde egin dezan". Donostiakoa hila- ren 20an egingo da aipatu moduan, eguerdiko 12:00etan abiatuko da Bulebarretik. Horrez gain, astelehenero mobilizatzen segiko dute duela zazpi urte baino gehiagotatik egin ohi duten moduan; Usurbildik gertuen, Hernanin edo ta Donostian.

Eskualdeko langabetuentzako bi formakuntza-ibilbide

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil bateratzen dituen Beterri-Buruntza Mankomunitateak deialdi bikoitza plazaratu du eskualdeko langabetuentzat. "Bi ibilbide hauek Elkar-Ekin Lanean 2025-2026 programaren barruan garatuko dira", jakinarazi dute Mankomunitetik.

Sala zuriko produkzio-teknikaria

- Nori zuzendua: emakume langabetuentzat.
- Barne doa: diploma eta zeharkako konpetentzien lanketa eta gaitasun digitalen trebakuntza.
- Hasiera: irailaren 29a.
- Ordutegia: 9:00-15:00.
- Tokia: Alegiako Errotalde industrialdea, 23.
- Iraupena: 345 ordu.
- Prezioa: Doan.
- Informazio gehiago: xlekuona@sutargi.org 670 903 666

Soldadura

- Nori zuzendua: 45 urtetik gorako langabetuentzat.
- Barne doaz: bigarren mailako ziurtagiri profesionala, praktikak enpresetan eta zeharkako konpetentzien lanketa eta gaitasun digitalen trebakuntza.
- Hasiera: urriaren 20a.
- Ordutegia: 14:30-20:30.
- Tokia: Andoaingo La Salle Berrozpe.
- Iraupena: 650 ordu.
- Prezioa: Doan.
- Informazio gehiago: monica@lasalleberrozpe.eus 943 590 557.

Euskara eta aisialdiko dirulaguntzen ebazpenak

Beste bi dirulaguntzen ebazpenen berri eman zuen Usurbilgo Udalak, irailaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez. Iragan ikasturtean zehar, aisialdiko begirale edo zuzendari gisa jarduteko prestakuntza ikastaroak euskaraz egin zituztenek nahiz euskara ikasten aritutakoek eginiko udal dirulaguntza eskaerei emandako erantzunak dira iragan astean argitaraturikoak.

Bi ebazpen horiek behin-behinekoak dira. Irailaren 13tik zenbatzen hasita, hamar laneguneko epea dago alegazioak aurkezteko.

Aisialdiko udal dirulaguntzak:

Aurkeztutako eskabideak: 10. Emandako dirulaguntza: 2.180.

Euskara ikasteko dirulaguntzak:

Aurkeztutako eskabideak: 40. Emandako dirulaguntza: 17.005.

Informazio gehiago:

Irailaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Haraneko musika lokaletan izena emateko aukera

Udalak onartua du Haranen kokaturiko bi entsegu gela intsonorizatuaren erabilerarako ordenantza. Horren baitan, lokalon erabilera baimentzeko izen-emate deialdia martxan du irailaren 30era arte. Interesdunek eskaera orriak bete beharko dituzte, usurbil.eus/eu/eskaera-orriak helbidean.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN
943 360 321
noaua@publizitatea.eus

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL



Astigarragako eta Usurbilgo alkateak Eusko Jaurlaritzaren sailburuarekin batera, irailaren 12an Astigarragan.

Usurbil udalerri tentsionatua izendatu dute hiru urterako

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatu zuen Usurbil, irailaren 12an. Modu horretan, Udalak martxoan amaieran eginiko eskaera onartu du Gasteizko gobernuak. Erabakia ezagutarazitako egun berean agerraldia egin zuten xehetasunak emateko.

Handik ordu gutxira agerraldi bidez eman zituzten xehetasunak Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko sailburu Denis Itxasok Astigarragako Erribera Kulturgunean, bertako alkate Xabier Urdangarinekkin batera. Izan ere, Usurbilez gain, azken udalerri hau ere egun berean eremu tentsionatuan sartzea erabaki zuen Jaurlaritzak.

Bi udalerriok aipatu izendapen bera duten gainerakoekin batera, eremutentsionatua. euskadi.eus atarian ikusgai dituzue xehetasun gehiagorekin; tartean, udalerri hau eremu tentsionatu izendatzea

eskatzeko Usurbilgo Udalak landu behar izan duen diagnosia eta hiru urterako ekintza plana eskura dezakezue. Zerrenda berean dira baita, Gipuzkoako eta Bizkaiko hiriburuak, Lasarte-Oria, Errenteria, Zumaia, Irun, Barakaldo edota Galdakao. Estatuko Aldiz-

kari Ofizialak urrian udalerrien zerrenda eguneratua argitaratzean indarrean sartuko dira bi udalerrioren izendapenak. Ordurako zehaztua egotea espero dute (iraila amaierarako aurreikusia dute) prest izatea Gipuzkoako Erreferentzia Prezioen Indizea, alokai-

**"DIRU-SARREREN
%28 INGURU
BIDERATZEN DUTE
USURBILDARREK
ETXEBIZITZA
GASTUETARA"**

AGURTZANE SOLABERRIETA

**"HORRETARAKO,
EZINBESTEKOA DA
UDALEKIN
BENETAKO
LANKIDETZAK
ERAIKITZEA"**

AGURTZANE SOLABERRIETA

ruko etxebizitzaren merkatua erregulatzen lagunduko duena.

Hiru urteko iraupena izango du eremu tentsionatuaren izendapenak baina luzagarria izan ahalgo da urtero "prozedura berari jarraituz, baldin eta deklarazio hori eragin zuten inguruabarrek bere horretan badiraute, eta aurreko deklaraziotik egoera lehene-ratzeko edo hobetzeko hartu diren neurriak eta ekintza publikoak justifikatu ondoren". Tarte horretan, "alokairuaren merkatua erregulatzeko mekanismoak" aktibatuko dira.

%19,9ko garestitzea

"Usurbilgo udalerria eremu tentsionatu izendatu da, batez ere 2017-22 urte artean alokairuaren batez besteko prezioa %19,9 igo delako, %17 gaituz (KPI+3 portzentaje-puntu), hori baita legeak kalifikazio hori lortzeko proposatzen duena". Datuok, "herriak gero eta etxebizitza eskuragarri eta babestu gehiago eskatzen ditu". Bazen bigarren baldintza bat ere aipaturikoa betetzen ez bazuen, derrigor izan beharko zuena udalerri honek; "diru-sarreraren %28 inguru bideratzen dute usurbildarrek etxebizitza gastuetara. Bigarren baldintza hau ez dugu bete, baina gutxiagatik", adierazi zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak. Izan ere, %30ean finkatua dago muga hori.

Albiste ezin hobetatzat jo zuen alkateak Eusko Jaurlaritzaren erabakia. Nabarmendu zuenez, "emergentziazko egoera bizi dugu eta egoerari aurre egiteko udalez gaindikoko bestelako politika integral eta ausartak behar ditugu. Izan ere, merkatuak ezin du erabaki nor bizi daitekeen Usurbilen eta nor ez". Merkatuan esku hartzea beharrezkotzat jo zuen. "Horretarako, ezinbestekoa da udalekin benetako lankidetzak eraikitzea". Izendapen hau eskuratzeko herri honetako etxebizitzaren egoerari

—> lotutako diagnosia eta 2026-28 urte arteko ekintza plana osatu ditu Udalak. Baliabide falta nabarmendu zuen Solaberrietak zereginotarako, "kanpo kontratazio bidez bideratzea ezinbestekoa izan zaigu".

"Kontrolik gabeko gorakada"

Hitz horiekin definitu zuen alkateak etxebizitzaren garestitzea Usurbilen. "2018-23 aldian prezioek %36 egin zuten gora, KPIak baino 20 puntu gehiago". Alokairuaren prezioak ere "Donostialdeko udalerri gehienetan baino azkarrago" garestitu dira eta ez dago eskaintzarik. Esan dezakegu, beraz, kontrolik gabeko gorakada bat izan dela". Igoera horretan, zerikusi zuzena du, "Donostiako salerosketaren prezio altuek". Izan ere, "presio egiten diote Usurbilgo merkatuari, tentsionamendua eraginez". Udalak landutako diagnosiararen arabera, Donostiatik Usurbila bizitzera etorritako "gehienek dituzte gure herritarrek baino errenta maila altuagoak" eta hemen bizitzea galdegin dutenak Etxebiden udalerri kanpokoak gehiago dira bertakoak baino.

Datu gehiago. Usurbilek %31,8ko emantzipazio tasa du, EAEkoaren azpitik da, eta nabarmen murriztu da urteotan "2011n %44koa zelako". Horrez gain, 256 etxe huts ditu Usurbilek, herriko bizilekuen %9a da hori (2011n %14a). "Horietatik gehientsuenei aplikatzen diegu ondasun higiezinaren zergari egun, %150eko errenergua".

Datozen hiru urteotarako ekintza plana ere diseinatu behar izan du Udalak izendapena eskuratzeko. Neurri multzoa iragarri du etxebizitza eskuragarri bihurtzeko, erakitakoetan hainbat eskuhartze eta jarduketa egiteko edota alokairua diruz ordaintzen laguntzeko. Azkenik, "plan hau aurrera eramateko gobernantza eredu" ere definitu dute. Neurri sorta honen artean



Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta azalpenak ematen, irailaren 12an Astigarragan eginiko agerraldian.

bi nabarmendu nahi izan zituen alkateak; batetik, "etxebizitza plana zaintzaren zeharlerrotasunetik diseinatu" izana. Eredu horri erantzuten dioten Usurbilgo proiektuak ekarri zituen gogora; Txirikorda, Egurtzegi edota bizi osorako sei etxebizitzak. Horrez gain, "hiru etxebizitza berri martxan jarri ditugu, gizarte bazterketako egoera kritikoei erantzun ahal izateko". Usurbilgo Hiria Antolatze Plan Orokorra indarrean sartzean (2026 hasieran espero dute Foru Aldundiaren behin betiko onespina) aplikatzen hasi ahalko dira ekintza plana. HAPO-ak "hurrengo 15 urterako 715 etxebizitza berri antolatzen ditu eta horietatik %62 etxebizitza babestuak dira, sozialak 340 eta tasatuak 102". Haietatik lehen lau urtean, "310 etxebizitza eraiki-

tzeko aukera ematen du". Horien artean, Pikaola eta Agerrazpi eremuak garatzeko "lankidetzaz hitzarmena sinatzea proposatu" diote Etxebizitza Sailari. Pikaolan 30 etxebizitza sozial eta "Agerrazpin 30-35 zuzkidura etxebizitza eraikitzeak aukera dugu".

"Tentsionamendu partekatua"

Denis Itxasoren esanetan, Astigarragak eta Usurbilgo "udalerriek badute zerbait amankomunean". Donostialdean daude eta "hiriburuak sortzen duen tentsioak argi eta garbi kaltetzen ditu". Horregatik, garrantzitsutzat jo zuen sailburuak "Donostialdea eta Txingudiko metropoli-ingurune osoa tentsionatutako eremu izendatzea, tentsionamendua partekatua delako eta alokairuaren merkatuan

esku hartzeko neurriek zentzua dutelako udalerri multzoari aplikatzen zaizkionean".

Izendapen hauen ondorioz, "kontratu berrien prezioa mugatu egingo da eta, azken bost urteetan alokatu ez diren etxebizitzak kasuan, erreferentzia-indizea aplikatuko da", iraila amaieran plazaratzea aurreikusia dutena hain zuzen. Horrez gain, "etxegabetzeen aurrean babestea indartzen da, eta kontratuen ezohiko luzapenak aktibatzen dira maizterrak zaurgarritasun-egoeran daudenean". Neurri gehiago ere hartzeko baliagarria izango da. "Udalek OHZn errekaratuak aplikatuko dizkiete hutsik dauden etxebizitzei, eta berariazko kanon bat ezartzeko prestatzen ari dira, arrazoirik gabe hutsik dauden higiezinak zigortzeko. Halaber, eraiki gabeko orubeetan hirigintza-zehapenak eta desjabetzeak aurreikusten dira, bai eta pisu turistikoak mugatzea ere, etxebizitzaren bizitegi-erabilera bermatzeko. Helburua da espekulazioa saihestea, eta etxebizitza-parkeak funtzio soziala betetzen duela ziurtatzea". Aurrera begira, "etxebizitza-eskaintza handitu behar dugu, dentsitate handitu".

"2018-23 ALDIAN, ETXEBIZITZEN PREZIOEK %36 EGIN ZUTEN GORA, KPI-AK BAINO 20 PUNTU GEHIAGO"

AGURTZANE SOLABERRIETA

"HELBURUA DA ESPEKULAZIOA SAIHESTU ETA ETXEBIZITZEK FUNTZIO SOZIALA BETETZEA"

DENIS ITXASO



2025-26 denboraldiaren aurkezpen ekitaldiaren amaieran, Usurbil K.E.-k eginiko talde argazkia.

Erronka eta ilusioz beteriko denboraldiari ekiteko prest

2025-26 denboraldiko erronkei heltzeko prest da Usurbil Kirol Elkartea. Eskubaloï taldeen bilguneak berriki Sutegin egin zuen, kirol urte berriaren aurkezpena. Taldeetako kideek, zuzendaritza berrituak edota erakundeetako ordezkariak parte hartu zuten ekitaldian.

Osatu dituzten taldeen xehetasunen berri eman zuten talde argazkia ateratzearekin batera. Jubenil mutiletan hamabostekoa osatu dute. Gogotsu eta motibazioz heldu diote denboraldi berriari, entrenatzaile Julen Nazabalen esanetan. Taldearen helburu nagusia, "entrenamendusaioetara konpromiso eta motibazio berarekin etortzea da eta denok eskubaloiaz gozatzeta". Entrenatzaile laguntzaile aritu nahi duenari deia egin zioten, horren beharrean dira eta. Taldeko lehen kapitain Enaitz Manterolarentzat taldeak duen erronka nagusia "jarrera berarekin jarraitzea da" denboraldi amaieraraino. Jubenil nesken helburu nagusia,

"inguru seguru eta giro naturalean kirola eginez oso ondo pasatzea" izango da, lan egin eta taldearekiko konpromisoa sustatzeaz gain, Andoni Flores entrenatzailearen esanetan. Kosta zaie taldea osatzea, "hamar jokalarï lortu ditugu, seniorrak beste 10 dira". Bi taldeok elkarrekin entrentzea adostu dute, hartara,

**"JUBENIL ETA
SENIOR NESKEK
BATERA
ENTRENATUKO
DUTE, ELKAR
LAGUNTZEKO"**

"jolasteko era bera izateko eta elkar laguntzeko". Jose Lorenzo Manzanok zuzenduko du senior nesken taldea. "Denok ikasiko dugu", Floresen esanetan. Jarrera onarekin eta ahaleginarekin, "emaitzak etorriko dira". Jokalarï faltan ziren senior neskak. Egoera horrekiko kezka bazuten, baina jakinarazi dutenez, "Ur-

**"SEGURU ONDO
PASAKO DUGULA.
IRABAZTEKO LAN
ASKO EGIN
BEHARRA DAGO,
ORDEA"**

nietakoak etorri dira". Elkarri lagundu eta ondo pasatzea dute erronka nagusi hurrengo hilabeteotan eta "ahal badugu, zerbait gehiago lortzen saiatzea, hobeto".

Lana eta konpromisoa

Kadete nesken bi talde osatu dituzte. Asko dira, Manex Irabazabalek eta Iker Nazabalek zuzenduriko "A" taldean. "Horrek gu bioi aurrera eramaten gaitu, poza ere bai, jende asko garelako. Nahi duguna da Xabatek guri erakutsitakoa transmititu eta guk ikasitakoa haiei irakatsi", adierazi zuen Nazabalek. "B" taldeak oinarria lantzea izango du, Xabier Iku-tza eta Hamadi Dah Ould entrenatzaileen esanetan, "baina batez ere, inor ez egotea deseroso, aurrera begira denek segitzea". Kadete mutiletan, "aurten, mutilak egurra egokitzen da", adierazi zuen taldeko entrenatzaile Jon Aizpuruak. Aurreikusi duenez, "seguru ondo pasako dugula. Irabazteko lan asko egin beharra dago", ordea.

Senior mutilek estreinakoz jokatuko dute lehen nazional mailan, entrenatzaile berri Lezoko Munttarpetik datorren Aitor Santosen gidaritzapean. Usurbilgo taldea "oso jatorra da eta oso batua dago". Mailari eustea izango dute erronka nagusia eta kluba garai batekoa izatera itzultzen lagundu nahi lukeela adierazi zuen Santosek. "Hori lan asko da klub barruan eta kanpoan". Taldeko kapitain Hamadi Dah Oulderen esanetan, haurtzaroraino haientzako erreferente izandako seniorren taldeen neurketak ikustera joaten ziren moduan nahi lukete garai hartako "giro hori izatea kiroldegian eta jende gehiago aritzea eskubaloian".

Azkenik, Eskubaloï Eskola abiarazi dute estreinakoz 20 gaztetxorekin. "Gure helburu nagusia izango da, eskubaloï eskolataz gozatzeta, batez ere oinarritzko arauak ikasita bukatzea ikasturtea", Julene

Herrador eta Libe Garcia de Eulate entrenatzaileen esanetan.

Zuzendaritza berritua

Jokalarien taldeekin batera, uda aurretik berrituriko zuzendaritza talde berria aurkeztu zuen Usurbil K.E.-k. Herrikideok osatuko dute: Jon Loidik, Julen Nazabalek, Jon Aizpuruak, Leire Unanuek, Maialen Saizarrek, Saioa Iparragirrek, Josu Garmendiak, Julen Begiristainek, Dani Iturbek eta Imanol Zalduak. Ardurak egoki banatzea dute erronka nagusia, "denontzat asimilagarria den lan zama izatea", hartara, "gure ondoren etorriko direnei ere marko on bat utzi diezaiegun kluba zuzendu eta administratzeko". Erakundeek emandako babes ekonomikoa baina batez ere morala eskertu zuten, "askotan garrantzitsuagoa dena". Usurbil K.E.-ko kideekin ere gauza bera egin zuten; babesa eta eskertza adierazi zieten.

"Herrigintza ere bada"

Usurbilgo Udaleko, Gipuzkoako Eskubaloien Federazioko eta Foru Aldundiko ordezkaritza gonbidatu zuen Usurbil K.E.-k denboraldi berriko aurkezpen ekitaldira. Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak argi utzi zuenez, "eskubaloia kirol praktika soila izatetik urrun, auzogintza izan da eta orain herrigintza ere bada". Hitza hartu zuen tartean, zuzendaritza talde berriari ongi etorria eman zion eta "euren lana eta konpromisoa ere eskertu", kluba 1963an sortu ostetik haien aurrekoekin egin bezala. Usurbil K.E. eta gainerako kirol taldeak eskertu zituen,



Usurbil Kirol Elkartek uda aurretik berrituriko zuzendaritza taldea aurkeztu zuen Sutegiko hitzorduan.

"haien lanik gabe gure herrian ez genuke kirol eskaintzarik izango" eta. Halere, kezka agertu zen zenbait partidetan arbitroarekiko dagoen jarragatik. "Herri bezala badugu zer landua" gai horretan, baita euskararen erabilera areagotzen ere. Lehiakortasunaren aurrean, balioak lehenesteko deia egin zuen.

Ildo beretik mintzatu zen Xabat Beloki kirol arloko zinegotzia ere. "Kirola bitarteko garrantzitsua da inklusio eta aniztasuna sustatzeko, komunitateen arteko zubiak eraikitzeko". Kirola

hautzarotik sustatzearen onurak nabarmendu zituen, "baina hori guztia herri proiektu orokorrako baten mesedetan kokatu behar dugula uste dugu". Entrenatzaile falta tarteko, jokalaria etorkizunean zeregin horretan aritzeko formatzera deitu zituen.

Gipuzkoako Eskubaloien Federazioko ordezkari Imanol Goikoetxearentzat "garrantzitsua da, bultzada ematea eta beti aurrera jotzea" eta talde gehiago sortzen segitzea. "Geroz eta klub gehiago izan behar ditugu eskualdean, in-

dar gehiago izateko" elkarrekiko arerioak izan gabe. "Denok familia bat izan behar dugu", gogorarazi zuen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol departamenduko zuzendari Roberto Ramajo ere gonbidatu zuten ekitaldira. Hitzordua oso baliagarritzat jo zuen "egiaztatze bultzada berria eman nahi diozuela klubari". Hori, bere esanetan, "eskubaloiak Gipuzkoan duen osasunaren islada da". Ezinbestekotzat jo zuen kirol jardura hau sustatzen segitzea, "Usurbilen egiten duzuen moduan. Beharrezkoa da zuen dedikazioa oinarritzeko kirol mailan". Gerora, ibibide horretan, "zenbat eta maila hobea izan gure jokalariei eta taldeek, Gipuzkoako eskubaloia handiagoa izango da, eta hori egiten da erronka handienak betetzen ahaleginduz". Bidelaguntza eskaini zion Usurbil K.E.-koei.

"KIROL PRAKTIKA SOILA EZ, AUZOGINTZA IZAN DA ETA ORAIN HERRIGINTZA ERE BADA"

"GEROZ ETA KLUB GEHIAGO IZAN BEHAR DITUGU ESKUALDEAN, IN-DAR GEHIAGO IZATEKO"

ARANKA
BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
www.noaua.eus

ARRANDEGIA PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91



Kadete mutilen taldea.



Jubenil nesken taldea.



Kadete nesken "A" taldea.



Eskubalo Eskolako Kideak.



Lehen nazional mailan lehiatuko den senior mutilen taldea.



Kadete nesken "B" taldea.



Jubenil nesken taldea.



Jubenil mutilen taldea.



Kontxan eginiko giza kate ibiltariaren uneetako bat. Irudi gehiago, noaua.eus atarian eskura ditzakezue.

Erraustegia ixteko eskaerak Kontxa inguratu zuen

Errausketaren aurkako aldarriak Kontxa inguratu zuen beste behin, hizki larriz, Donostiako estropaden azken igandean. Zubietako erraustegia itxi eta Gipuzkoako gaikako bilketa hobetzea galdegin zuten, eragile sindikal, sozial eta politikoen babesia izandako mobilizazioaren bidez.

Igande goizeko 11:00etan abiatu zen giza katea, ohi bezala, Gipuzkoako hiriburuko udal-letxe ataritik Kontxako hondartzarantz. Arrapalatik jaitsi eta itsasertzean, errausketaren aurkako herri horma luzea eraiki zuten, mugimenduan izandako giza katearen bidez. Mobilizazioaren buru, "ez elikatu erraustegia. Biziklatu!" zioen aldarria. Haren atzetik, hizki larriz eta gorriz, "errausketarik ez!" zioen aldarri ikusgarria eta, segidan, errausketaren aurkako banderolak eskuarteetan zituzten hainbat lagun ziren katean.

Palestinarekin bat

Aurten, aipatzekoa, errausketaren aurkako aldarriak nola

egin duen bat palestinar herriaren aldekoarekin. Txaloak ere entzun zituzten zenbait uneetan, hondartzan zirenen aldetik.

Gaikako bilketa hobetzeko eskaera

Errausketaren Aurkako Mugimenduak antolatu eta ELA, ESK, LAB, STEILAS, CCOO, EHBildu, Ezker Anitza, Eguz-

BEHARREZKOA EZ DEN ERRAUSTEGI GARESTI ETA KUTSATZAILEA IXTEA ESKATU ZUTEN

ki, Ekologistak Martxan, Donostia Bizirik eragileek babes-turiko mobilizazio honen bidez, bi eskaera plazaratu zituzten. Batetik, "beharrezkoa ez den erraustegi garesti eta kutsatzailea" ixtea eskatu zuten. Izan ere, "gaur egungo errefusa erretzeko Donostiako erraustegiak dituen bi la-beetatik bakarra nahikoa da", Errausketaren Aurkako Mu-

"GIPUZKOAKO HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA HOBETU DEZATELA HERRI GUZTIAN", GALDEGIN ZUTEN

gimenduaren esanetan. Eta, bigarrenik, "Gipuzkoako hondakinen gaikako bilketa hobetu dezatela herri guztietan" galdegin zuten. Hala gertatuko balitz, "are eta ageriago geratuko da Gipuzkoak ez duela erraustegirik behar".

"Greenwashing merkea"

Gaurkoz, ordea, egoera oso bestelakoa da eta testuinguru horretan, "Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EAJ eta PSEko agintariek hondakinen inguruan "greenwashing" merkea egiten" dutela adierazi dute igandeko giza kateko deitzaileek. Izan ere, gogora ekarri dituzte giza kateko antolatzaileek berriki Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Diputatu Jose Ignacio Asensiok hedabideetan adierazitakoak. "Bere esanetan, Gipuzkoak betetzen du Hondakinen Legeak 2025erako ezartzen duen helburua: %55a gaika biltzea. Gainera, azken urteetako bilakaera ikusita Gipuzkoako gaikako bilketa goia jotzeko puntuan omen dago".

Hitz horiekin gezurretan aritzea egotzi diote Asensiori. "Nola har dezakete haien meritutzat Gipuzkoako gaikako bilketa!", nabarmendu dute. EAJ eta PSE Gipuzkoan agintzen direnetik (duela 9 urtetik) "gaikako biletak %7a egin du gora. 2011-15 legealdiko urte bakarrean (EH Bildu), 2014tik 2015era, gaikako bilketa %6a igo zen". Foru Aldundiak iaz kaleraturiko datuetan oinarrituta, gogorarazi dutenez, "Donostiak, Irunek, Eibarrek, Elgoibarrek, Hondarribiak... guztiek gaikako bilketa %50 inguruan edo baxuago dutenek, Beasain, Bergara, Zumarraga, Hernani mailara helduko balira 15 puntu baino gehiago egingo luke gora gaikako biletak Gipuzkoan".

Bitartean, "Zubietako erraustegiak jarraitzen du gau eta egun inguruko izaki bizidun guztiak, lurzorua bera, landareak, animaliak eta bertan bizi garen gizakiok pozoitzen".



2. Iñurri Egunaren baitan, zaintza hizpide nagusi izandako mahaingurua egin zuten Sutegin.

Zaintza izan zuten hizpide, bigarren Iñurri Egunean

Bizitza ospatzeko eguna bizi izan zuen herri honek irailaren 13an egindako 2. Iñurri Egunaren bidez. Denetarik ekintzak programatu zituzten; horien artean, zaintza ahotan hartu zuen mahainguru interesgarria egin zuten Sutegin.

ARITZ LASARTE

Bizitzari gorazarre egin zion herri honek irailaren 13an ospaturiko bigarren Iñurri Egunaren bidez. Goizetik gaue-
ra antzeman zen uneoro antolatu zituzten ekitaldietan, malko eta irri artean, "hil arte bizi" nahi dutela. Iñurritegia nola hazten doan, bai kopuruz, aniztasunaren ikuspegitik nahiz hedadura aldetik ere horren erakusleho argia izan zen iragan larunbateko jaialdia.

Esnatzea, tailerra, bertso musikatuez giroturiko bazkari jendetsua izan zituen edizio honek. Horrekin batera, minbiziaren akonpainamendu, formazio eta dibulgazioan ikuspegi feminista eta eralda-

tzaile batetik eragiten diharduen iñurritegiak Sutegin antolaturiko mahaingurua izan zen. Maider Galardi ikerlari eta kazetariak dinamizatu zuen. Alboan lau hizlari izan zituen, denak iñurriak edo haien bidelagunak.

Zaintzaile izatetik zaindua izatera

Zaintzaz aritu ziren, autozaintzaz, zaintza sareez, (ez) amatasunez. Nola uztartu nork bere burua minbizi prozesuan, besteeiko zaintza ardurekin, bikote harremanarekin, horixe izan zen ahotan hartutako hizpideetako bat. "Zaintzailearen rola oso barneratua dugu, gure burua feministatzat jota ere", adierazi zuten. Aldiz,

zaindua izatea egokitzen denean, hizlari hainbaten kasuan bezala, zaintzaile lanak albo-ratzea uztea ze zaila den nabarmendu zuten. "Asko kostatzen zaigu zaintza askatzea". Hor, "pendiente dugun" gaia aipatu zuten; "gaixotu aurretik, gure burua zaintzea".

"Sarearen garrantzia"

Zaintzaz aritu ziren, minbizi diagnostikatutik aurrerakoaz

"ZAINTZAILEAREN ROLA OSO BARNERATUA DUGU, FEMINISTA IZANDA ERE"

baita prozesu horren ostekoaz baita; "gorputza berriz sentitu eta maitatzen ikasi beharraz", sexu harreman afektiboak eraldatu beharraz edota nortasuna berreraiki beharraz. Horretan guztian, "sarearen garrantzia" nabarmendu zuten, dauden gabeziak seinalatzearekin batera. Emakumezkoen minbiziaz "datu oso gutxi" daudela eta, ikerketa sustatzearen garrantzia ere nabarmendu zuten. Halako prozesu baten "amaieran", informazio eta profesionalen formazio gabezia agerikoak direla azpimarratu zuten. Gogorarazi zutenez, ordea, "bizi nahi dugu, baina kalitatez", aldarrikatu zuten. Horretarako, zer hobetua badela adierazi zuten. "Amaizatea ukatu izan zait, informazio faltagatik", zioen hizlarietako batek. Bere esanetan, "informazio argia eman beharko litzaieke emakume ugalkor guztiei. Baina ez dago protokolorik, nahiko larria da".

Komunitatea, eraldaketarako tresna

Testuinguru horretan, geroz eta indibidualistagoa den gizarte honetan, argi adierazi zuten "komunitateak sortzea dira, eraldaketarako tresna bakarrak". Zaintza pribatizatu beharrean, "zaintza sistema komunitarioa" aldarrikatu zuten, "sareak sortzea, erakundeek denok zaintzeko baliagarria den sistema" sustatzea. Ildo horretan, prozesuotatik guztietatik iñurritegiaren bidelaguntza goraipatu zuten. "Ez da erraza topatzea ondo ulertuko zaituen norbait". Zentzu horretan, Iñurri Elkartearen ekarpena nabarmendu zuten. "Paziente aktiboa izatea, biltzea, emozioak bideratzeko", horixe eman ziola nabarmendu zuen hizlarietako bat. Desio bat ere plazaratu zuten; "gizartea Iñurriren antzekoagoa izatea; zaurgarritasunetik elkar zaindu eta maitatzea".



Iñurrikoen postuko salerosketak ez ziren eten egun osoan.




Plaza bete jende. Benetan jendetsua izan da aurtengo Iñurri Eguna.



Gorputzaren esnatzearekin ekin zioten larunbateko jaialdiari.



Hunkidura handiko bertso musikatuaren saioa egin zuten.



Iñurri Egunak duen esnadei propioaren une bat; gorputzak esnatzen frontoian.



Zeramika, bitxigintza eta makrame tailerrak antolatu zituzten Iñurri Egunean.



Olatz Salvadorrek, Olaia Inziartek eta Idoia Asurmendik amaitu zuten jaialdia.



Etenik gabe hazten doan iñurrien komunitatearen erakusle, irudi hau.



Kirol arloko udal zinegotzi Xabat Beloki eta Zirimarako kide Manu Urbiet, erakusketa honen sustatzaileak.

"Norgehiagoka", lehiakortasun goiztiarraz hausnartzen

Eskola kirolean nahiz orohar, kirolean nabarmentzen diren jarrera desegokiez eta lehiakortasun goiztiarraz hausnartzea du xede, irailaren 26tik urriaren 12ra Sutegin bisitatu ahalko duzuen "Norgehiagoka" erakusketak.

ARITZ LASARTE

Pil-pilean den gaia ekarriko digu Zirimarak Usurbilgo Udalekin batera, astebate barru Sutegira. "Eskola kirolean eta, oro har, kirolean izaten diren jarrera desegoki eta lehiakortasun goiztiarraz hausnartzea" xede izango duen "Norgehiagoka" izeneko erakusketa antolatu dute, irailaren 26tik urriaren 12ra.

Hiru asteburuetan izango duzue ikusgai, ikus-entzunezko, argazkiez eta testuez hornituriko erakusketa. Irekiera ofiziala, astebate barru izango da, irailaren 26an arratsaldeko 18:00etan. "Haur, nerabe eta herritar guztiak gonbidatu dituzte aurkezpe-

nera zein erakusketa bisitatzera, baita herriko kirol talde eta klubak ere".

Ikus-entzunezkoa abiapuntu

Hasiera batean, ikus-entzunezko lan bat izan behar zena dimentsio handiagoa hartu du azkenean, erakusketa bilakatzeraino. "Batetik, Zirimarako hezitzaile, haur eta gurasoek elkarrekin osatutako ikus-entzunezkoa dago; Amaia eta Asier Mendoza anai-arrebek jarri dizkiote hitzak eta ahotsa", antolatzaileen esanetan.

Bestalde, "kirol munduko, hezkuntzako eta kultur eremuko 35 lagun gaiaren inguruan hausnartetan jarri dituzte, eta testu bana idatzi dute,

propio, erakusketarako". Deialdian parte hartu dutenen artean dira, eremu ezberdinetan erreferentziazkoak diren pertsonak. Badira usurbildarrak baita Euskal Herrikoak ere. Aurpegi ezagun ugari idatziak aurkituko dituzue Sutegiko erakusketan. "Kirol mundutik, besteak beste, Patri Espinarrek, Eneritz Maiorak, Xabier Mikel Errekondok edo Iñaki Artolak idatzi dituzte

**HERRITAR GUZTIAK
GONBIDATU
DITUZTE
ERAKUSKETAREN
AURKEZPENERA**

testuak; kultur eremuan, besteak beste, Jose Luis Otamendik, Nerea Loiolak, Amets Arzallusek eta Amaia Agirrek; hezkuntza munduan, besteak beste, Eneko Harreguyk, Uxue Fernandezek, Joxe Mari Agirretxe 'Porrotx'-ek eta Ixabel Agirresarobek".

Liburuxka, eduki osoarekin

Egitasmoak hartutako dimentsioaren erakusle, liburuxka bat osatu dutela. Izan ere, "aretoaren arabera, litekeena da testu guztiak ezin erakustea, eta, beraz, liburuxka batean bildu dituzte guztiak: interesa dutenei denak irakurtzeko aukera eman nahi diete, eta, horregatik osatu dute liburuxka, nor bere kasa patxadaz irakurri eta gaiaz hausnartzeko aukera emateko".

Zenbait argazki ere izango dira Sutegin kokatuko duten erakusketan, "testuen lagungarri. Mikel Laboa plazan Iñaki Zinkunegi argazkilariak egindakoak dira batzuk; besteak, ikus-entzunezko lanetik ateratakoak dira, jolas libretik jolas zuzendurako sortzen den aldea nabarmentzeko".

Herri gehiagotara eramateko aukera

2018an sortu zuten Zirimara udalak, NOAUA! kultur elkar-teak eta Udarregi ikastolak. "Oinarri horren erakusgarri da 'Norgehiagoka' erakusketa ere", antolatzaileen esanetan.

Usurbilen ikusgai izan ostean, "erakusketa bultzatu duten jarrera desegokiak orokortutako fenomeno bat izanda, erakusketa beste herri batzuen esku uzteko borondatea dute antolatzaileek".

Erakusketaren egutegia

- Irekiera egunak: irailak 26, 27, 28. Urriak 3, 4, 5, 10, 11, 12.
- Ordutegia: Ostiraletan eta larunbatetan: 17:00-20:00 artean.
- Igandeetan: 12:00-14:00 artean.
- Irekiera ekitaldia: irailaren 26an, 18:00etan.



Euskaraz aritu eta trebatzeko ikastaro eskaintzaren sustatzaileak, aste hasierako bilkuran.

Euskaraz aritu eta trebatzeko ikastaro eskaintza zabala

Euskara ikasi, maila hobetu nahiz euskara ahotan hartzeko trebakuntza saio eskaintza zabala aurkeztu dute, Usurbilen alor horretan lanean diharduten Etumeta AEK euskaltegiak, Ttakun K.E.-k eta Usurbilgo Udala. Urrian abiaraziko dituzte saioak, izen-ematea zabalik duzue.

ARITZ LASARTE

"Alde batetik, Etumetak euskara ikasteko eskaintza propioa izaten du, eta, gainera, Udalarekin elkarlanean aritzen da Udalak bultzatutako ikastaroak ematen".

Beste alde batetik, "haur eta nerabeen ezagutza-maila hobetzeko zerbitzua eta helduen ahozko jarduna mintzataldeen bidez hobetzeko zerbitzua eskaintzen du Udalak, Ttakun K.E.-ren laguntzarekin". Horregatik, diotenez, "adin guztietako herritarrei eskaintzen zaie aurten, euskara ikasteko, hobetzeko eta praktikatzeko aukera".

Segidan dituzue, eskaintza honi buruz sustatzaileek helarazitako xehetasunak:

Etorri berrientzako hastapen ikastaroa

Iraupena: urritik ekainera, astean 1,5 orduko saioa, gutxira 45 ordu.

Tokia: Potxoenea.

Helburua: "Etorri berriak euskararen mundura gerturatzea, oinarritzko esamoldeak ezagut ditzaten".

Izen-ematea, doan: euskara@usurbil.eus / 943 37 19 99.

Jubilatuentzako oinarritzko ikastaroa

Iraupena: urritik ekainera, astean 1,5 orduko saioa, gutxira 45 ordu.

Tokia: Artzabal.

Xehetasunak: "Ikastaroan, oinarritzko hiztegia, esamoldeak, arauak... eta, oro har,

egunerokotasunerako maku-luak ikasiko dituzte".

Izen-ematea, doan: euskara@usurbil.eus / 943 37 19 99.

Etumeta AEK euskaltegia

Tokia: Etumeta AEK euskaltegia.

Izena eman edo argibide gehiago jasotzeko (iraila osoan): 607 609 379 / usurbil@ae.eus / Kale Nagusia 43.

"HERRITAR GUZTIEI ESKAINTZEN ZAIE, EUSKARA IKASI, HOBETU ETA PRAKTIKATZEA"

Oharra: "Matrikula ordaindu behar bada ere, udalak urtero eskaini ohi ditu euskara ikastaroak egiten dituztenentzako dirulaguntzak: gutxieneko aprobetxamendua eta %80ko asistentzia betez gero, matrikularen kostua osorik jasotzeko aukera dago (600 euroko mugarekin)".

6 eta 16 urte bitarteko haur eta nerabeek euskara-maila hobetzeko saioak

Nori zuzenduak: behar baino maila apalagoa duten ikasleentzako.

Zehaztasunak: "Eskola orduz kanpoko gainerako jardueren osagarri, jolasa da saioon muina; DBHko ikasle-taldearen kasuan, etxerako lanak ulertzen laguntzeko tarte ere hartzen da. Ordu eta erdiko bina saio antolatzen dira, astero".

Non: herri erdigunean, Aginagan eta Zubietan. Kaxkoan, ikas-mailaren arabera eratuko dira taldeak (HH5-LH2, LH3-LH6 eta DBH1-DBH4); Aginagan eta Zubietan, berriz, HH5-LH6 bitarteko haurrak elkarrekin ariko dira.

Oharra: mailaketa-probak udalerriko ikastetxeek edo egitasmoa kudeatuko duen Ttakun elkarteak egingo dituzte. Izen-ematea doan, irailaren 25era arte: zerbitzuak@ttakun.eus / 650 45 93 54.

Mintzาลagun

Helburua: "Euskaraz hitz egiteko gaitasuna hobetzea. Euskaraz ondo moldatzen diren pertsonak eta hizkuntza-maila hobetu nahi dutenak elkartzean datza. Kideen zaletasunak, adina, bizitokia eta ordu-tegiak aintzat hartuta osatzen dira taldeak, eta astean behin elkartzeko konpromisoa hartzen dute".

Informazioa: zerbitzuak@ttakun.eus / 650 45 93 54. Doan.

Oharra: "bi motatako euskaldunek eman dezakete izena: euskaraz bizitzeko ohiturarik ez dutenak eta euskaraz ondo moldatzen direnak.



Zubietako Errebote Eguneko antolatzaileak, iragan astean egindako aurkezpen ekitaldian.

"Omenaldia egin nahi diogu hain kuttuna den gure errebote jokoari"

Merezitako aitortza, gorazarrea egingo zaio Zubietak berea duen erreboteari. Joko hau ezagutarazi, gizarteratu nahiz omentzeko Errebote Asteburua antolatu dute irailaren 27rako eta 28rako elkarlanean Zubieta Pilota Elkartek eta 650 Usurbil bizi herri egitasmoak, Zubietako Herri Batzarrarekin eta Usurbilgo zein Donostiako udalekin lankidetzan.

Zubieta Pilota Elkarteko ordezkari Mikel Bengoetxea pozarren agertu zen Errebote Egunarekin, iragan astean eginiko aurkezpenean. "Omenaldia egin nahi diogu hain kuttuna den gure errebote jokoari". Joko aitzindaria, "sustrai sakonak" dituenak, gogorarazi zigunez. "Errebotearen historia ez da laburra. Aspalitik dator. Iparraldean indar handia du, baina Gipuzkoan gerra aurretik dozena bat talde bazeuden. Egun, Oiartzun, Zubieta eta Villabona geratu gara".

Gerra aurretik eginiko bi-deari segida eman zioten, Bengoetxeak gogorarazi due-

nez, "50. hamarkadan, herriko gazte batzuk. Aizpurua baserrian hartutako zesto batzuekin hasi ziren joko berreskuratzen; lehenbizi ikasten, Iparraldera joanez. Haiei zor diegu, gerra ondoren, joko berreskuratzea". Haiez gain, "hainbat herritar aritu dira

"ERREBOTEK EZ DA JOKO HUTS BAT, ZUBIETAREN PARTE DA, GURE OINARRIA, GURE SENTIMENDU BAT"

laguntzen urte hauetan". Hainbat erakundek eginiko lana ere eskertu nahi izan zuen, bereziki Yoko Garbi Elkartearen ahalegina. "Haiek izan ziren hartu zutenak ardura joko eramateko aurrera eta, ondoren, Zubieta Pilota Elkartek hartu zuen bere gain

"PLAZA BERA ALTXOR BAT DA, EZ DIRELAKO HALAKO ASKO IKUSTEN GIPUZKOAN ETA EUSKAL HERRIAN"

ardura hori". Argi aldarrikatu nahi izan zuen Bengoetxeak; "errebotea ez da joko huts bat, Zubietaren parte da, gure oinarria, gure sentimendu bat. Horri eutsi behar diogu". Ondare kulturala zela nabarmendu eta ahalegina egitea galdegin zuen errebotea ondare inmaterial gisa onartua izan dadin, "beste joko batzuk izan diren bezala, adibidez, laxoa Nafarroan". Errebote Egunean ondo pasatzeko deia egin zuen.

"Plaza bera altxor bat da"

Ekimen honen sustatzaileetako bat dugu 650 Usurbil Bizi herri egitasmoa. "Zubietak berezko ezaugarria du errebotea eta duen balioa aitortu eta ezagutarazteak bete-betean egiten du bat 650 Usurbil Bizi egitasmoaren filosofiarekin", nabarmendu zuen proiektu honen dinamizatzaile Ines Azpiatzuk. Izan ere, "plaza bera altxor bat da, ez direlako halako asko ikusten Gipuzkoan edo Euskal Herrian orohar". Errebotearen plaza da baina "hainbat aldarrikapen, kultur adierazpen eta festen lekuko eta eskenatoki ere bada". Horren adibide gisa jarri zuen, Oskar Alegriak duela bi urte ekoiztiko "Zumeta 23".

"Bidelagun izango gaituzue"

"Zer izango litzateke Donostia Zubieta gabe?", itaundu zuen Errebote Egunaren aurkezpen agerraldian parte hartutako Donostiako alkate Eneko Goiak. Lehendik esan izan duen moduan, "hona etortzeko aukera duan bakoitzean, gustura etortzen naiz, uste dudalako Zubieta dela Donostia egiten gaituen parteetako bat eta askotan ez dugu hori behar bezala aitortzen eta onartzen. Gaur, benetan plazerra da, aurkezpen honetan parte hartu ahal izatea, oso gurea den kirol bat mundura zabaltzen egiten den saio honetan".

Alboan izan eta errebotearen alde lanean dihardutenak eskertu zituen Goiak. "Hemen,

→ elkartzen gaituen zer bait dugu, eta hori garrantzitsua da, beste gauza askoren gainetik".

Errebote Egunaren bidez, aurreikusi duenez, "aukera izango da gure nortasuna zer den adierazteko. Hori da garrantzitsua eta etorkizunean ere zaindu eta egin beharreko gauza dugu". Ahalegin horretan, "Donostiako Udalak Zubietaren berea sentitzen duelako ere bai, bidelagun izango gaituzue".

Herri nortasunaren parte

"Zubietaren eta Usurbilen nortasunaren parte bat da errebotea. Eta badagokigu, ondorioz, hori ezagutu, balioan jartzea ere Usurbildik", adierazi zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak. Horretan dihardute, 650 Usurbil Bizi herri egitasmoaren bidez. "Proiektu horretatik eskaintza bat egin nahi dugu Usurbilgo baloreetan, ondarean (material edo inmateriala) eta proiektu eraldatzaileetan oinarritzen den eskaintza bat egin nahi dugu Usurbildik Euskal Herrira eta Euskal Herriko mundura, zergatik ez". Horren baitan, "azkeneko aste eta hilabete luzeetako elkarlanari esker, aukera dugu proiektu horretan jada jasotzen den errebotearen Zubietaren erakusteko".

Nabarmendu zuenez, "guretzako zer erakutsi nahi dugun bezain garrantzitsua da nola egiten dugun bide hori", gogorarazi zuenez, "adostasunetik eta elkarlanetik" beti ere. Errebotearen Eguna da horren adibidea.

Erreboteak Zubietarentzat duen esanahia azpimarratu zuen Zubietako Herri Batzarren izenean, haren orde-



62. Enrike Abril errebote txapelketako bi neurketa jokatuko dira Errebotearen Egunaren baitan.

kari Jon Arroio. "Argi dago erreboteak Zubietan duen eragina, errebote plaza guretzat ondarea da, betiko herri-gunea, herritarrak elkartzeko lekua. Gipuzkoan errebotean jolasteko aukera gutxienetakoa mantentzen dena. Haurrek, gazteek jolasten segitzen dutena".

Errebotea bizirik mantentzeak, Arroyoren esanetan, "herria ere bizirik mantentzea" eragiten du. Horrez gain, "erreboteak nazio ikuspegia aitortzeko eta lehiatzeko aukera ematen du" eta hala, harremanak sendotzea. Eskerrak eman nahi izan zizkion

Zubietako Elkarteari, "hau dena bizirik mantentzeko egiten duten lanagatik".

Usurbilgo eta Donostiako Udalei eskatu zien, Errebote Egun hau "ez dadila asteburu batera mugatu, erreboteak asko behar du eta urte osoan lanean segi behar da". Eskerrak helarazi zizkion baita Errebote Eguna iragartzeko Malen Aierbe Zubeldia herrikideari diseinatu duen kartelagatik. Iraila amaierako Errebote Egunera deitu zituen zubietarrak eta bisitariak. "Denak ongi etorriak izango dira. Errebotea ezagutzeko aukera izan eta egun polita pasa dezagula".

"GURETZAT ZER ERAKUTSI NAHI DUGUN BEZAIN GARRANTZITSUA DA NOLA EGITEN DUGUN BIDE HORI"

"ERREBOTEAK NAZIO IKUSPEGIA AITORTZEKO ETA LEHIATZEKO AUKERA EMATEN DU"

Errebotearen Asteburua

Irailak 27, larunbata

16:30 Gazteen joko garbi partida. Amaieran, xextoak probatzeko eta jolasteko aukera irekia.

18:00 Karta-jokoen saioa, Dani Carballo diseinututako pilotari buruzko kartekin.

19:00 Afari-merienda trikitixak alaituta.

20:00 Zubietako Herri Eskolakok erreboteari eskainitako totemaren aurkezpena.

21:00 "Errebotea. Plaza-joko baten muina" bideoaren proiektzioa.

Irailak 28, igandea

09:00 62. Enrike Abril txapelketako bi partida: Zubietako 1-Luzean eta Zubietako 2-Zaharrer Segi. Partida ikusi artean, azalpenak emango dituzte.

Antolatzaileak: Zubietako Pilotari Elkartea, 650 Usurbil Bizi.

Laguntzaileak: Donostiako Udala, Usurbilgo Udala, Zubietako Herri Batzarra.

TXAPELDUN
ARDANGELA

EGUNEKO MENUA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA

Muna lurra 2, 943 49 88 83

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Antxeta
TABERNA

egunero irekitzen dugu!

eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!

943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

Patxi
bazkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata

© 943 362725 · © 688 690 361

EAJ-PNV, "Usurbil garbiago, seguruago eta bizigarriago baten alde"

Berdeguneetako lorezaintza, inausketa eta mantentze zerbitzuan atzemandako gabeziei konponbidea emateko asmoz, Usurbilgo EAJ-PNVren udal-taldeak mozio bat aurkeztu du.

"2025eko udan agerian geratu da gaur egungo lanek ez dietela erantzuten ez herriaren egungo beharrei, ezta usurbildarren eskakizunei ere". Usurbilgo EAJ-PNV alderdiaren esanetan, desoreka handiak antzeman dira erdigunearen, auzoen eta landa-eremuen artean, baita lanen maiztasun eta intentsitatean ere. "Horrek ondorio deserosoak izan ditu: tamaina handiko belar eta sastrakak, mugikortasun-arazoak espaloietan eta pasealekuetan, hiri-altzariaren erabileran oztopoak eta osa-

sungarritasun-arazoak espazio jakin batzuetan".

EAJ-PNVk azpimarratu duenez, "berdeguneak behar bezala kudeatzea funtsezkoa da, oinarritzko zerbitzu publikoa da, eta zorrotz eta arduraz kudeatu behar da".

Bi eskaera

Jeltzaleen mozioak bi proposamen jasotzen ditu bere baitan:

- Gobernu-taldeari eskatzea berrikusi eta eguneratu ditza-la parke, berdegune, bidezidor eta oinezkoentzako pasealekuetako lorezaintza, inausketa eta mantentze zerbitzuaren



EAJren esanetan, "berdeguneak behar bezala kudeatzea funtsezkoa da". EAJ

baldintzak, dela baliabide propioekin, dela kanpora ateratako zerbitzuen bidez, honako hauek gehituz: lanetan maiztasun handiagoa, udalerriko eremu periferikoetan intentsitate handiagoa eta plangintza, kontrol eta jarraipen lanen hobekuntza.

- 2026ko udal-aurrekontuan lorezaintzara, inausketara eta berdeguneak mantentzera bideratutako partida ekonomikoak hainbat urtetarako

gehitzea, zerbitzuaren hobekuntza bermatzeko.

EAJ-PNVk aditzera eman duenez, ekimen honek herri-tarren eskaera argi bati erantzuten dio. Mozioaren bidez bermatu nahi du "Usurbilek guñe berde zainduak eta ego-kiak izatea herritar guztien gozamenerako eta ongizate-rako. Usurbil garbiago, seguruago eta bizigarriago baten aldeko konpromisoa berresten dugu".

Pilota partidak

Irailak 18, osteguna, 20:00 Aginagan:
Gipuzkoako 2. Mailan, binakako txapelketa paleta gomaz. Pagazpe-Izurun

Irailak 19, ostirala, 18:30 Usurbilen:
Gipuzkoako Jubenilen 2. Mailan, eskuz binaka: Pagazpe-Eibar 2

Eskubaloi partidak

Irailak 20, larunbata

- 10:00 Kadete neska B: -Bilagun Usurbil K.E.
- Ordizia Oiangu
- 11:30 Senior neska: Urbil Usurbil K.E. - Pulp
- 13:00 Jubenil neska: -Usurbil K.E.
- Saieko Autogelkor
- 17:30 Senior mutilak: -Saizar Usurbil K.E.
- CB Romo Broker Kirol

Boulderren Txapelketako onenen artean

Joan den asteburuan izan zen Espainiako Boulder Txapelketa eta Markel Korta usurbildar-rrak hirugarren egin zuen 15 urte azpikoetan. Proba horrek Espainiako Koparako balio zuen, eta irailaren 20-21eko asteburuan Espainiako Kopako bigarren jardunaldian ere parte hartuko du Usurbilgo kirolari gazteak, Mijasen (Malaga).



Markel Korta hirugarren izan da Espainiako Boulder Txapelketan.

Ondarroan segiko du Iñaki Errastik beste urtebetez

Ondarroa Arraun Elkartetik jakinarazi dutenez, beste urtebetez taldeko kide izaten segiko du Aginagakoak.

Ondarroa Arraun Elkartetik jakinarazi duenez, orain arteko entrenatzaile bera izaten segiko du beste urtebetez gizezkoen taldean. "Iñaki Errasti Ubera izango da, Ondarroko traineruko entrena-tzailea hurrengo denboraldian ere", berri eman du udalerri horretako arraun elkartek.

Bederatzigarren denboraldia izango du Ondarroan

Gogorarazi dutenez, datorrena zeregin horretan ariko den bederatzigarren denboraldia izango da aginagarrarentzat. "Eskerrik asko eta zorte on!", desio izan diote arraun elkartetik aginagarrari.

Futbol Eskolako izen-ematea ixtear da

Irailaren 19ra arte eman ahal-ko dute izena 2014, 2015, 2016 eta 2017 urteetan jaiotako umeek. Entrenamenduak ostiraletan izango dira: 2016-2017 urteetan jaiotakoak 17:30etik 18:30era bitarte; 2014-2015 urteetan jaiotakoak, aldiz, 18:30etik 19:30era bitarte. Entrenamenduez gain, Gipuzkoako Futbol Federazioak antolatutako partida bat edo bi jokatu dituzte hilean, urritik ekainera bitarte.

200 eurokoa izango da urteko kuota (klubean neba-arre-barik izanez gero, 25 euroko deskontua egingo zaio). Horrez gain, haur bakoitzak klubeko arropa izan beharko du partidetara joateko: poloa, txaketa, parka eta motxila.

Izen-emateko: <https://labur.eus/rkkbeaiu>



Maddi Olaetxea iazko lasterketa batean. AIURRI

"Lasterketak toki berriak ezagutzeko dudak aitzakiak dira"

MADDI OLAETXEA MENDI DUATLOILARIA

Maddi Olaetxea bigarren denboraldia hasiko du mendi duatloian irailaren 27an. Mendi bizikleta eta mendiko lasterketak uztartzen dituen kirola da, eta neska gutxi dabilzala aitortu du.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Nola ikusten duzu emakumeen kirola?

Nire kirolean bai ikusten dudala desberdintasun handi bat gizon eta emakumeen artean, batez ere, partaide kopuruari dagokionez. Mutilak hamar aldiz gehiago direla ez esatearren, bederatzi aldiz gehiago dira mutilak. Mendiko duatloian kopuru aldetik izugarrizko desberdintasuna ikusten da.

Nola lortu daiteke emakume gehiago mendi duatloian ibiltzea?

Ez dakit. Baina azkenaldian konturatu naiz mendi lasterketetan emakume askoz

gehiago dabilzala. Hala iruditzen zait, eta errepideko bizikletan ere egunerokotasunean geroz eta emakume gehiago ikusten dira.

Mendiko bizikletan, aldiz, ez dira hainbeste ikusten. Eta akaso hori izan daiteke jendeari atzera botatzen diona.

"MENDIKO DUATLOIEAN KOPURU ALDETIK IZUGARRIZKO DESBERDINTASUNA IKUSTEN DA"

Eta arazorik izan duzu emakume izateagatik?

Ez. Mendiko duatloietan kristoren giro polita dago, giro euskaldun, sano eta herrikoia. Eta alde horretatik oso proba politak dira.

Denboraldiari dagokionez, noiztik nora izaten da?

"MENDI DUATLOIEAN GIRO POLITA DAGO, GIRO EUSKALDUNA, SANO ETA HERRIKOIA"

Iraila bukaeran hasiko da denboraldia eta hilabete pasatxo irauten du. Astebururo izaten dira lasterketak.

Eta entrenatzeko nola egiten duzu?

Gaur egun ez dut bereziki horretarako entrenatzen. Ni nire kasan ibiltzen naiz kirolean eta gero proba horiek egiten ditut. Andatza da nire entrenatzeko tokia. Asteazkenean, gertuko mendiak eta asteburuetan urrutiagokotara joaten naiz.

Zer espektatiba dituzu hasiko den denboraldirako?

Nire bigarren denboraldia izango da, eta oraindik nahiko berria da niretzako. Nire helburua kirolarekin disfrutatzea da, ez daukat beste helburu espezifikorik.

Eta duatloietaz aparte baduzu beste ametsen bat, Zegama-Aizkorri parte hartzea adibidez?

Hori gustatuko litzaidake, baina oraintxe bertan ez nago horretarako prestatzen. Bada amets bat baina oraintxe bertan ez. Kirolarekin egunerokoan disfrutatzea dut helburu, eta lasterketak toki berriak ezagutzeko dudak aitzakiak dira. Ez dut horrelako lasterketarik buruan, baina Titan Desert-en parte hartuko nuke.

Liga moduan funtzionatzen du?

Bai, Euskal Herriko liga bat bezala da, eta Euskal Herriko leku desberdinetan egiten dira lasterketak. Gehienak Gipuzkoan dira, baina badago baten bat Bizkaian eta Araban. Proba bakoitzean badago irabazle bat, baina postuaren arabera, puntuak gehitzen doaz.

Zenbat aurkari izan zenituen lehengo urtean?

Lasterketaren arabera. Esan behar da ere modalitate desberdinak daudela. Batzuk proba guztia egitea da, eta besteak binakako lasterketa da: batek bizikleta egiten du eta besteak korri. Hor neska gehiago ikusi izan ditut.



Santuenea Kultur Elkartek usurbildar talogileekin antolatutako tailerra. SANTUENEA K.E.

Santuenea martxan, festen atarian

Talo tailerra, barreterapia, ikasturte hasierako festa... Eta ekimen gehiago antolatu zituen Santuenea K.E.-k iraila hasieran "Santuenea martxan" zikloaren baitan. Hitzordu gehiago antolatu dituzte hurrengo asteotarako. Aurretik, festetan murgilduko da Santuenea asteburuan.

Ikastaroak

- Tai-chi: urritik aurrera, as-telehenetan, 17:00-18:00 ar-teen. 675006445 (Maribi).
- Aeroyoga: urritik aurrera. 615715991 (Leire).
- Joskintza: ostiraletan, 17:00-19:00. 695774951 (Mari Car-men).

Saioak

Urriak 4, larunbata

- **10:00-13:00** Sendabelar ba-ratzea Santueneako frontoi ondoko lokalean, Garbiñe Larrearen eskutik: "Sendabe-lar bakoitzarekin alde prakti-koa landuko du: mendafin tintura eta emultsioa, izpilikuz egindako lubrikatzailea...".
- **Prezioak:** Santuenea K.E.ko bazkideek 25 euro, bazkide ez direnek 30 euro.

Urriak 12 eta azaroak 16

- **11:00-13:00** Heriotzaren pedagogia bizipen tailerra Manex Beristainen eskutik, Santuenea 12an: "heriotzaren gaia errespetuzko giroan, elkar entzunez eta konfiantzazko espazio seguru batean elkar-banatzeko aukera ederran da espazio hau. Norbere herio-tzari begiratzeko tresnak lan-duko ditugu, dolu prozesuaren inguruko dinamikak egin eta bakoitzaren kezka, egonezin eta ibilbide pertsonalerako baliabideak garatuko ditugu".
- Santuenea K.E.ko bazkideek 30 euro (bazkide ez direnek, 35).

Urriak 17, ostirala

- **21:00** Bertso-afaria Santue-neako Ibai-Ondo Elkartean. Bertsolariak: Nerea Elustondo, Sustrai Colina eta Eli Pagola.
- Gai-emailea: Onintza Gartzia.

Menua: txistorra, bakailaoa saltsan, saiheskia, gazta, irasa-garra eta intxaurrek, kafea, kopa.

- **Prezioa:** 35 euro. Txartelak Esnaola janaridendan salgai.

Urriak 24 eta azaroak 7

- **17:30-19:30** Sendabelar koaderno Leire Lazkanoren eskutik, Santueneako frontoi ondoko lokalean: "Gure in-guruan agertzen diren sen-dabelarrak behatu eta ezagu-

**"URRIAREN 17AN
BERTSO-AFARIA
IBAI-ONDON.
SARRERAK
ESNAOLA
JANARIDENDAN
DAUDE SALGAI"**

tuko ditugu. Norberak bere koaderno sortuko du ingu-ratzen gaituen lurra eskain-tzen dizkigun sendabelarrak jasoz. Belarrak ezagutzen ikasiko dugu, haien erabilerak ulertzen eta haien onurak aprobetxatzen".

- **Prezioak:** Santuenea K.E.ko bazkideek 30 euro, bazkide ez direnek 35 euro.
- **Oharra:** plaza mugatuak.
- **Izen-ematea:** 621 095 644 / santueneake@gmail.com

Santueneako jaiak

Irailak 19, ostirala

- 17:00** Txupinazoa.
- Ondoren,** globo gerra.
- 18:00** Burrunbazale Txaranga.
- 18:30** Buruhandiak.
- 19:30** Sardin jana.
- 22:00** Txalainak.
- Ondoren,** DJ HODIrekin Re-member Festa.

Irailak 20, larunbata

- 10:00** Puzgarriak.
- 13:00** Buruhandiak.
- 14:00** Haurren bazkaria (nor-berak ekarria, bertan edaria eta postrea banatuko dira).
- 15:30-16:00** Muserako izen-ematea.
- 16:00** Mus txapelketa.
- 16:00** Apar festa.
- 17:30** Txokolatada.
- 18:00** Buruhandi eta erraldoiak, Lauburu konpartsaren eskutik.
- 20:00** Holi Festa, DJ Gorka Mendirekin.
- 00:30** Dj gaua: Mr Luken 2008, Kiliki eta Chuchamba Fönk La Flaca.

Irailak 21, igandea

- 09:00** Esnadeia JON&JON.
- 11:00** Zirko tailerra.
- 11:00** Toka txapelketa.
- 12:00** Hamaiketako txosnan.
- 12:00** Zantantzarrak.
- 14:00** Auzo bazkaria.
- Ondoren,** bingoa.
- 18:00** Buruhandiak.
- 18:00** Izer eta Alabier.
- 19:00** Piper dastaketa.
- 21:00** Festen amaierako traka.

Antolatzailea: Santueneako Jai Batzordea.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilgo erdigunean 3 logelako etxebizitza eta garaje bat bat dauz kagu alokatzeko. Etxe osoko gelek argi naturala dute. 658706447.

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 688 653 441.

Usurbilen (erdigune edo auzoetan) alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil. Pertsona bakarra naiz eta ez daukat animaliarik. Diru sarrera finkoak ditut. 630089127

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Andatza taberna sukaldari laguntzailer bila dabil. 627841927.

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldaria behar da. 661972670.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Pertsona helduan zaintzeko lan bila nabil. Zaintzaile titulazioa dut eta esperientzia handia. Interna moduan edo orduka lan egiteko disponibilitatea. 618814363 (Marta)

Lan bila nabil. Eskaintzaren baten berri baduzu, deitu: 668 57 85 52 / anquitara@gmail.com

Garbiketa lanak edo ume zein helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila nabil. Erreferentzia onak dauzkat. Goizetan 16:00ak arte lan egiteko aukera. 604302785

Garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egiteko lan bila nabil.

Zaintzaile titulua daukat eta interno moduan edo orduka lan egiteko disponibilitatea. 631654743

Orduka eta egunez, adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. 747446091.

BESTELAKOAK

Batxilergo 2. maila egingo duen ikasle bati matematika eta fisikako klase partikularrak emateko norbaiten bila gabilta. 657714355

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

Haurren aisialdirako hezitzailea naiz, eta esperientzia dut. Irailean prest ume zaintzan edota eskola-ko lan errefortzuetan. 688896135

Klase partikularrak emateko pertsona baten bila nabil. DBH3ko ikasle bati, astean 3 egunez. Ikasurte osoko konpromisoa: 647742588

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitagia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldedia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzguna	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

HILDAKOAK



Maria Teresa Arzallus Beraza
Abuztuaren 29an hil zen, 93 urterekin.



Miren Goikoetxea Oliden
Irailaren 11n hil zen, 87 urterekin.



Jose Luis Ibarguren Basurto
Irailaren 8an hil zen, 85 urterekin.

Aginagako jaietarako txartelak

Urriaren 3tik 11ra ospatuko dira aurtengo Aginagako jaiak. Jai batzordeak prest du egitaraua. Aginagarren bilgune izango diren bi hitzordueta-rako txartelak erosteko aukera duzue egunotan. Hain zuzen, batetik, San Praixku Egunez, urriaren 4an iluntzeko 21:00etan, "herri afari bikaina" iragarri dute. Sarrerak Eliza Zaharrean eskuratu ahalko dira hiru egunotan, jai batzorde-

detik zehaztu dutenez: irailaren 22an, 24an eta 26an, 18:00-20:00 artean. Helduenak 30 eurotan erosi ahalko dira, haurrenak 12 euroren truke. Bestalde, hilaren 10ean gazte afaria antolatu dute 21:00etan Atarialde elkarteak. Bertara joateko asmoa dutenek antolakuntzaren Instagram kontuan idazteko deia egin dute. Honatz helbidea; @eliza_zaharra_elkargunea

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 19

SANTUENEA Jaiak

17:00 Txupinazoa. Ondoren, globo gerra.
18:00 Burrunbazale Txaranga.
18:30 Buruhandiak.
19:30 Sardin jana.
22:00 Txalainak. Ondoren, DJ HODIrekin Remember Festa.

LARUNBATA 20

SANTUENEA Jaiak

10:00 Puzgarriak.
13:00 Buruhandiak.
14:00 Haurren bazkaria (norberak ekarria, bertan edaria eta postrea banatuko dira).
16:00 Mus txapelketa (izen-ematea, 15:30-16:00).
16:00 Apar festa.
17:30 Txokolatada.
18:00 Buruhandi eta erraldoiak.
20:00 Holi Festa, DJ Gorka Mendi.
00:30 Dj gaua: Mr Luken 2008, Kiliki, Chuchamba Fönk La Flaca.

IGANDEA 21

SANTUENEA Jaiak

09:00 Esnadeia Jon&Jon.
11:00 Zirko tailerra.
11:00 Toka txapelketa.
12:00 Hamaiketakoa txosnan.
12:00 Zantantzarrak.
14:00 Auzo bazkaria. Ondoren, bingoa.
18:00 Buruhandiak.
18:00 Izer eta Alabier.
19:00 Piper dastaketa.
21:00 Festen amaierako traka.



Igandean, 'Uharte bat eta gau bat' filma eskainiko dute Zubietako errebote plazan.

Zinemaldi alternatiboa Zubietan

Urtero bezala, iraileko hirugarren astean Donostiako Zinemaldia hasiko da, eta duela urte batzuetatik Donostiako hainbat herritarrek alternatiba bat eskaintzen diote "zinemaldi" horri.

Donostiako Zinemaldian ematen ez dituzten pelikulak izaten dira ikusgai, eta alfonbra gorrietatik eta fokoetatik kanpo dauden guneetan proiektatzen dituzte.

Aurten, eta ateri bada, gune horietako bat Zubietako erre-

bote plaza izango da (euria bada, Kaxkapen). Igande honetan, 20:00etan hasita, "Uharte bat eta gau bat" filma eskainiko dute.

Gune autogestionatu baten lekukotza

Pelikularen egileek Dijoneko (Frantzia) gune autogestionatu batean murgilduko gaituzte. Bertako egunerokotasuna, imaginario politikoa eta erresistentzia kontatzen duen filma da.

Manga tailerra udal liburutegian

Irailaren 26an, manga marrazketari lotutako hastapen tailerra arratsaldeko 17:30ean udal liburutegian. Sara Basurtok eskainiko du. LH4tik gorako gaztetxoei zuzenduriko saioan 16 lagunentzako tokia egongo da. Izena liburutegian bertan eman beharko da.

Bisita gidatuak

Irailak 20, larunbata

11:00-12:30 'Gerraren memoria ibilbidea: kolpisten okupazioaren urtemuga.

Irailak 21, igandea

11:00-13:15 'Museo Irekia eta Zumeta Estudiora bisita gidatua'.

Irailak 24, asteazkena

10:00-11:00 'Zero Zabor bisita gidatua' egiteko aukera.

Informazio gehiago eta erreserbak:

650usurbilbizi.eus

Usurbilgo I. Raida

Usurbilgo I. Raida iragarri dute Urdaigagan, datorren irailaren 28an. Andatza Endurance Club Kirola eta Euskal Hípika Federazioa daude antolakuntzan. Lehiaketa honetan, aurrez ezarritako hainbat kilometrotako etapa edo faseak osatu behar behar dituzte parte hartzaileek. Xehetasun gehiago datorren asteko aldizkarian.

Zuen iragarkia hemen

✉ publizitatea@noaua.eus
☎ 747-486-835

txirriStra
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
7ABERNA
Kontseju zaharra, 13
Tel 943 36 04 66

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil



sentitu - bizi - izan



PADI (odontopediatria)
ORTODONTZIA
IMPLANTEAK
ODONTOLOGIA BIOLOGIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA
SEDAZIOA

943 29 06 19 - Arrantzale kalea 63, ORIO

@bare.hortzklina

ATEAK ZABALIK DITUZU USURBILEN JARDUERA BERRI BATI HASIERA EMATEKO!

zabalik.usurbil.eus

DIRULAGUNTZAK

ALOKAIRURAKO
DIRULAGUNTZA
USURBILEN HUTSIK
DAUDEN LOKALETAN

ZURE PROIEKTUAREN
HASIERAKO GASTUEI
AURRE EGITEKO
DIRULAGUNTZA

ESKAERA AURKEZTEKO BI EPE:

1. epea: maiatzak 31 arte

2. epea: irailak 30 arte

Informazio gehiago

943 37 19 51 / 688 884 314 /

747 441 745

enplegu@usurbil.eus

ekintzailletza@beterriburuntza.eus

usurbil
zabalik



SAGARDO KLUBA: IPARRALDEKO SAGARDOEN DASTAKETA

IRAILAK 25, OSTEKUNA
18:00tan Aginagako Eliza Zaharrean

Sagardo berrien bideak; apardunak, bertako hainbat barietateekin egindakoak (Mamula, Eztika, Eri sagarra, Anisa, Jinkoa, Gehesia Gorria, Errezila, Koko xuria, Bordelesa), sagar zukuak.

Aurkezlea Bixente Etchefaray izango da, Iparraldeko sagarnoen sindikataren eta Sagartzearen kidea.

**PLAZA
MUGATUAK!**

Kostua: 10€
(Usurbildar eta Alkartasunako kideek 5€)

